


HOZKAILUA

Idazlea
UNAI ITURRIAGA

Zuzendaria
MANEX FUCHS

Aktoreak
ANDER LIPUS
PATRICIA URRUTIA

Artedrama
615.779.511.
info@artedrama.com

Arte
Drama 



AURKIBIDEA

HARIAREN SINOPSIA

SINOPSIA 03

ZER GERTATU DA? 03

ANTZEZLANA

PERTSONAIAK 05

TRATAMENDU DRAMATURGIKOA 05

FITXA ARTISTIKOA 07

EGUTEGIA 08

LAGUNTZAILEAK 09

HARIAREN SINOPSIA

Aurrera filmetako gidariak!
Aurrera akademiako agintariak!
Aurrera koilare desberdineko txakurrak!
Ondo neurtu gelditzen zaizun bizi txikia!

Bizi nahi dut ahal baldin bada

Gaizki sentitzen naiz!
Gaizki sentitzen naiz!
Negar egin nahi dut eta ezin
Oihu egin nahi dut eta debekatua
Maitatu nahi dut eta ez didate uzten
Borroka ez dut nahi baina beharrezkoa da
Hiltzea nahi izango nuke baina une berean

Bizi nahi dut ahal baldin bada.

BALDIN BADA, Rock taldea

SINOPSIA

Maite eta Karlos herririk herri dabilta hozkailu zahar batekin. Hozkailuaren barruan, garagardo lata eta hestekien artean, Londonetik dakarten Jimmy lagunaren hilotza daramate. Zin egin baitzioten Jimmyri bere jaioterrian lur emango ziotela. Nongoa zen galdetzea ahaztu zuten ordea. Zinezko adiskidantza bat azaleratuko duen ezinezko bilaketa baten istorioa da Hozkailua.

ZER GERTATU DA?

Maite eta Karlos lagun minak izan ziren gaztetan, koadrila berekoak. Laurogeigarren hamarkadaren hondarretan punky izatera jolastu ziren uda batez, jairik jai, saldoan beti, parkeetan lo eginez. Uda hartan ezagutu zuten

HARIAREN SINOPSISIA

Jimmy, edozein herriko jaixetan. Uda azkentzearekin batera Londonera jo zuten hirurek, garaiko squaten Mekara.

Karlosi ez zion asko iraun beroaldiak eta laster itzuli zen Londonetik gurasoen etxera, ikasketei berrekin eta gazte arrunt baten bizimoduarekin jarraitzera. Maite eta Jimmy Londonen geratu ziren.

Egun, Maitek ez dauka sosik, egunean bizi da. Jimmyren gorpua garraiatzeko beste modurik otu ez eta bigarren eskuko denda batean auskalo zenbatgarren eskuko hozkailu bat erosi eta bertan sartuko du hilotza etxera bidean ustel ez dakion. Abiatzerako ohartu da hozkailuak entxufatuta dagoenean baino ez duela funtzionatzen. Hala ere, emakume ausarta eta irmoa izaki, aurrera egingo du Maitek oztopo guztien gainetik.

Euskal Herrira iristean Maite Karlosekin jarriko da harremanetan. Karlos gurasoenean bizi da berriz, horregatik aurkituko du Maitek hain erraz hogeitazak urteren ostean. Ustekabean harrapatuko du Karlos Maiteren laguntza-eskeak eta pare bat eguneko kontua izango delakoan laguntzea erabakiko du. Pare bat egun baino gehiago izango dira ordea, baita pare bat aste baino gehiago ere... Jimmyri lur eman artean bukatuko ez den abentura absurdo bati hasiera emanez horrela, Euskal Herriaren luze zabalean (antzezlanaren non, istorioa han), eta memoriaren bidezidorretan zeharreko itinerantzia absurdo eta komiko bat.



ANTZEZLANA

PERTSONAIAK

Karlos

Berrogei urteak ondo beteta ditu. “Jende normalaren” bizimodua eroan du oraintsu arte. Ikasketak amaitu, beharrea hasi, ezkondu, familia izan (bi ume), ezkerreko alderdiren bati bozkatu, hipoteka ordaindu, manifaren bat edo bestera joan... eta dibortziatu egin da. Azken xehetasun honek klase ertainaren behin betiko segurtasunaren ametsean bizi izan den heldua ezegonkortasunera eta prekarietatera eroan du. Ustekabean, aspaldi berrikusi barik zeukan bere baloreen eskala mila puska eginda dago eta Maiteren agerpenak, eta harekin behialako iragan idealizatuarenak, hankaz gora jarriko du Karlosen bizitza.

Maite

Berrogei urte bete berri dituen neska betigazte irmo eta beregaina. Herritik Londonera joan zeneko idealei eutsi die gutxi-gehiago (hori uste du berak), eta diskurtso egituraturik ez bada ere, zelanbait, oraindik ere mantentzen du garai bateko anti-todo izpiritua. Londoneko mundu alternatibo eta alegalean duintasunez eta bere kapritxotxoekin (zergatik ez onartu) bizitzeko bidezidorrak aurkitu ditu joandako urteotan no future dioen kamiseta bat soinean erateko gai izan arren, esoterismorako eta astrologiarako pizten ari zaion interesak zahartzen ari dela adierazten du bera ohartzen ez bada ere.

TRATAMENDU DRAMATURGIKOA

Benetako istorioa MAITE eta KARLOS herri batetik bestera dabiltzanean eta herri horretan daudenean gertatuko dena izango da. Zelanbait esanda istorioa herri bakoitzean aldiro hasi eta burutuko bada ere, guztien artean istorioaren itinerantziaren logika indartuko dute. Jakina, istorio horretan aurreko atalean azaldutako informazioa erabili eta azaleratzen joango gara MAITEk eta KARLOSEk unean unean bizi dutenaz gainera, betiere nagusiki komedia tonu batean.

ANTZEZLANA

Izan ere, egoera sinesgaitz bezain absurdo batetik abiatzen gara: lagun baten gorpua, herririk-herri hozkailu batean daraman bikoarena, alegia. Batetik ekintza ez-legezkoa den heinean badu bere puntu klandestino eta, bestetik, ez dago ezer ageriagorik bi metroko hozkailu batekin bide bazterretik eta espaloitik ibiltzea baino. Bide batez, hozkailua entxufatu beharrak eta barruan dagoen lagunaren gorpuaren hondatzeak urjentzia eta puntu beltz bat eransten dizkio istorioari eta, ondorioz, komediari berari.

Edozelan ere, azken finean, Karlos eta Maite halako egoera muturreko bezain absurdo batean jartzea interesgarri zaigu bi pertsonaiok mundu errealetik erabat bakartzen dituen neurrian. Horrela, isolamendu tenporal horretatik eta pertsonaien begiradatik iraganeko eta egungo gizarteari aparteko talaia batetik begiratzeko aukera daukagu. Neurri batean gaztaroko ametsen eta helduaroko jokabideen arteko lerro hautsiaz modu kritiko eta komiko batean aritzeko aitzakia bat da antzelana. Gure herriari botatako begirada kritiko bat. Kritikoa politikoki, sozialki, giza-harremanei dagokienean (adiskideak, ezkontza, seme-alabak, gurasoak...)... Betiere komedia tonu batean.



FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza:	Manex Fuchs
Idazlea:	Unai Iturriaga
Aktoreak:	Ander Lipus Patricia Urrutia
Musika:	Asier Ituarte
Kitarra:	Keu Agirretxea
Argiztapen diseinua:	Josep Duhau
Teknika:	Xabino Alkorta
Eszenografia:	Amaia Garate
Panpina:	Battitte Haltsouet
Jantziak:	Marodi Sorkuntzak
Irudia:	Zugazart
Argazkiak:	Ainhoa Resano
Administrazioa:	Iasone Parada
Banaketa:	Irantzu Azpeitia
Ekoizpena:	ArteDrama



EGUTEGIA

Egonaldien egutegia:

- Egonaldia 2016eko ekainean. BERRIZ
- Egonaldia 2016eko irailean. BERRIZ
- Egonaldia 2017ko otsaila. LEIOA
- Egonaldia 2017ko martxoa. LEIOA
- Egonaldia 2017ko martxoa. ITSASU-Hameka
- Egonaldia 2017ko apirila. AULESTI

ESTREINALDIA, 2017ko Apirilak 17, Aulestiko Antzerki Topaketak

- Maiatzak 26 Laudio
- Maiatzak 27 Zarautz
- Maiatzak 28 Markina-Xemein
- Ekainak 3 Deba
- Ekainak 25 Bolibar
- Uztailak 8 Kultur Etxea, Zestoa
- Uztailak 13 Donostia
- Uzatilak 14 Donostia
- Uztailak 15 Donostia
- Irailak 8 Gerrikaitz (Munitibar)
- Irailak 29, 30 La Fundicion, Bilbo
- Urriak 1 La Fundicion, Bilbo
- Urriak 8 Marabilli Jaialdia, Ondarru
- Urriak 20 Erakusketa Gela (Oxford), Zumaia
- Urriak 28 Kultur Etxea, Berriz
- Azaroak 1 Kultur Gela, Larresoro
- Azaroak 17 Santa Ana Antzokia, Oñati
- Azaroak 23 Gaztetxea, Azpeitia

Katxeta: 1.200,00 € + bez (%21) = 1.452,00 €

LAGUNTZAILEAK



- Bizkaia. Foru Aldundia



- Kultur Leioa



- Hameka



- Berrizko Udala



AULESTIKO UDALA

- Aulestiko Udala



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

- EJ GV